

Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea



Ostadarraren indarra;
ekaitzaren ondoren dator argia!

Ekainaren 28a Sexu Aska-
penaren Nazioarteko
Eguna izan da. Ostadarrar-
en koloreak ikusi ditugu
manifetako pankartetan,
udaletxeetan, etxeetako

Errezilgo Goiko Plazan dagoen banku edo eserleku bakarra ostadarraren kolorez margotu dute. Eta, hara!, mugimendu txikiek ekar dezaketen olatu handien eredu bihurtu da. Pentsa dezakegu, «jesus, zer da ba eserleku bat ostadarraren kolorez margotzea?».

Jendea kexu segituan hasi da: «gure betiko eserlekua margotzea zeini bururatu zaio?». Gazte batzuei ez zaie ondo iruditu ekintza, kolore horiek bultzatzen dutenarekin ez daudelako ados.

Eta, hara!, egunotan inor ez dut ikusi eserita eserlekuian... Hor dago betiko tokian, bakar-bakarririk, kuriosoa, ezta?

Jende bati zaila egingo zaio hor esertzea barruak mugitu gabe. Beste batzuk harro eseriko dira, urteetan

oso zaila egin zaielako bailaran beraien desira sexualak askatasunez adieraztea, beraien bikotekideak herrira ekartzea, jakinda norbaitek zer-bait esango ziela edo aurpegi txarra jarriko zuela. Beste gizon batzuk deseroso sentituko dira; «ene, zer pentsatuko dute eserleku horretan eserita ikusten banaute?»).

Irudi polita izango litzateke aitonak berriketan ostadarraren gainean eserita ikustea. Nola sentituko ote ziren? Lehengo garaiak eta oraingoak aipatzen dira askotan, baina, gauzak hainbeste aldatu al dira?

Ba badirudi oinarrian ezetz. Aldarrikapenetan ederki gabiltza, hitzen bidez egin behar direnean, esaldiak oihukatuz... baina, jarrerak eta emozioak nahasten direnean badirudi egoerek gure lekuan jartzen gaituztela eta barruak ederki mugitzen zaizkigula.

Askotan aldarrikapenen harira
ekintza handiak pentsatzen burua
hausten dugu eta eserleku bat margo-

tzea, mugimendu xume eta txiki bat, kontzientziak eta emozioak mugitze-ko oso baliagarri zaigu. Errezilgo ban-kuaren adibidea ikusi besterik ez.

Eserlekua inoiz baino politagoa da-
go, hainbeste kolorez beteta... Ziurre-
nik haurrak laster hasiko dira lasai
ederrean eta beti bezala bere gainean
esertzen eta kontuak esaten. Izan ere,
haurrak dira irekienak, kolore biziak
gehien maite dituztenak, marroiak
eta beltzak baino askoz gehiago. Hau-
rrek askatasuna nahi dute beraientzat
eta besteei ere berdina opatzen diete,
askatasuna eta zoriona. Tamalez, jen-
dartearen mezuek, komunikabideeta-
tik datozenek, etxeko eredu estuek
eta horrelakoek bihurtzen dituzte
haurren koloreak ilun.

Eserlekuaren inguruan lasai asko dantza egin dezagun, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek abestiz dioten bezala: «Elkarrekin ostadarra marraztu dugunean, ispiluan nire izena idatzi duzunean. Begietara begira hauxe nahi dizut esan: maite zaitut, maite maite zaitut...». •



Errezilgo Goiko Plazan dagoen banku bakarra ostadarraren kolorez margotu dute. Herritar batzuk aztoratu egin dira.

GAUR8

osasuna / hiriaren lo(r)aldia / **harremanak**

3 BEGRADA: